

Funtsezko jarduerak

Aurrean esan dugun bezala, gure helburua nerabei haien estres maila murriztea horretarako haien bizitzak antolatzen laguntzen da, beraz, hori lortzeko institutoetara joango gara eta hor gazte bakoitzarekin hitz egingo dugu.

Gure helburua lortzeko zenbait jarduera egin behar ditugu, eta hurrengoak dira:

Hasteko, jarduera garrantzitsuena gure **bezeroekin**, hau da, Bizkaiko institutoak, eta **bazkideekin**, hots, Bizkaiko unibertsitateak psikologia edo horrelako beste ikasketak egiten ari diren ikasleak hornitu digutenak, **harremanak sortzea** da. Oso garrantzitsua da hasieratik biek konfiantzazko erlazioak izatea, egonkorak eta errespetukoak, beraz, zenbait kanpaina antolatuko ditugu haien arreta deitzeko eta gure ideian sinisteko, gero azalduko ditugun baliabideak erabiliko dituztenak esandakoa lortzeko.

Bestalde, bezeroekin harremana sortzeko **komunikabideekin harremanak** egitea ere garrantzitsua da, hau lortzean gure ideia zabaltzea, bai bide hauen bidez iragarkiak jarriz bai elkarrizketak egiten, eta horrela laguntza jasotzea lortu ahal dugulako. Beraz, Bizkaiko komunikabide desberdinekin kontaktatuko dugu

Esandakoaz gain, gure ideia aurrera eramateko dirua behar dugu, beraz diru hori egingo dugun **landareen** salmentetik aterako dugu. Beraz, nahiz eta garrantzi gutxiagoa izan, landareen salmentekin erlasionaturiko jarduerak ere egin behar ditugu.

Psikologoen gertatzen den bezala bai **bezeroekin** bai **bazkideekin harremanak sortzea** garrantzitsua da, bazkide leialak izatea salmenta batzuk ziurtatzen digutelako eta bazkideekin ondo eramatea inportantea delako haien produktuak (haziak, loreontziak, langileak...) lortzea errazago izateko.

Beste dokumentuetan esan dugun bezala, landareei buruzko aktibitateak egingo ditugu jendea gure ideia modu dibertigarrian ezagutzeko. Gainera, jendeari landatzeko erabiltzen ditugu lurraldeak ezagutzeko aukera emango diegu.

Hona hemen Psycho Floraren funtsezko jarduerak, garrantzitsuenetik garrantzi gutxiago duen arte:

	Zertarako	Garrantziaren zergatia
Psikologoekin bezeroekin eta bazkideekin harremanak sortzea	Gure antolatzeko zerbitzua emateko behar ditugun psikologoak izatea ziurtatzeko eta zerbitzu hau nori emateko jendea izateko	Ezinbestekoa da gure ideia aurrera eramateko, hau da, gure helburua nerabei haien estres maila murriztea horretarako haien bizitzak antolatzen laguntzen denez, laguntza hori jasotzen

		dituzten bezeroak eta hori aurrera eramateko baliabideak ematen digutenak behar ditugu.
Landareen bezeroekin eta bazkidekin harremanak sortzea	Landareen negozioa aurrera eramateko behar dugun materiala lortu ahal izateko eta jendea gure kausarekin kontzientziatua egoteko bezeroak ziurtatzeko	Idea aurrera eramateko dirua behar da, eta diru hori lortzeko sortuko dugun negozioa ere bere bezeroak eta beharrezkoak diren baliabideak behar ditu aurrera eramateko.
Komunikabideekin harremanak sortzea	Gure bezeroengan ailegatzea errazago izateko	Komunikabideekin harremanak izateak bezeroekin harremanak izaten lagunduko du, baina ez da ezinbestekoa, hau gabe Psycho Flora aurrera joan ahal da.